

Barneko I+Gko gastua % 9,1 handitu zen Euskal AEn 2022an

Dedikazio osoko baliokidetzan ari diren langileen kopurua % 4,9 hazi zen

Barneko Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretako gastua % 9,1 hazi zen 2022an Euskal AEn, Eustatek egindako **behin-behineko emaitzen** arabera. Dedikazio osoko baliokidetzan I+Gn lan egiten duten langileen guztizko kopurua % 4,9 gehitu zen.

Egikaritze-sektoreen arabera, enpresek % 8,9 igo zuten barne-gastua, eta % 4,4 I+Gko jardueretarako langile kopurua. Goi-mailako irakaskuntzan, gastua % 9,5 hazi zen, eta I+Gko langile kopurua % 6,6. Azkenik, Administrazio Publikoaren sektorean, gastua % 9,6 hazi zen, eta I+Gn diharduten langileen kopurua % 3,2.

Azken datu konparagarrian (2021), barneko I+Gko gastua BPGarekiko % 2,11 izan zen Euskal AEn; hau da, Espainiako gastua (% 1,43) baino % 48 handiagoa.

I+Gko gastuaren eta dedikazio osoko langileen aldaketa, egikaritze-sektorearen arabera. Euskal AE. Aurrerapena. 2022

	2022/2021 Gehikuntza (%)	
	I+Gko gastua	Langileak (DOB)
Guztira	9,1	4,9
Enpresak eta IAGEP	8,9	4,4
Herri-administrazioa	9,6	3,2
Goi-mailako irakaskuntza	9,5	6,6

Data 2023ko Uztailaren 18a

Iturria: Eustat Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika

Ohar metodologikoa: Eustatek **Datu-aurrerapena** dakar, 2022an I+Gko gastuek eta langileek izan duten bilakaerari buruzkoa. Horretarako, enpresak, goi-mailako irakaskuntza eta administrazio publikoa hartu dira kontuan. Horiek aurreko urtean lortutako gastu osoaren % 87,3 hartu zuten, eta, horri esker, 2023ko uztailera aurreratu ahal izan da emaitzen aurrerapena. Behin betiko emaitzak aurtengo azaroan aurkeztuko dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62